

## World Press Photo 2015, hamahiru urte Vitoria-Gasteizen

### Montehermoso Kultur gunea (antzinako ur-biltegia), urriaren 16tik azaroaren 15era

Hamahirugarren urtez jarraian munduko prentsa-argazkilaritza lehiaketarik entzutetsuena, Word Press Photo, Vitoria-Gasteizen izango da ikusgai, biziki gune aproposan, 2013an eta 2014an bezalaxe: Montehermoso kultur guneko antzinako ur-biltegian.

Erreportari grafiko profesionalentzako lehiaketa honen inguruko kopuruek ikusgarriak izaten jarraitzen dute eta zeinen garrantzitsua den islatzen. Aurtengo lehiaketara —berrogeita hamazortzigarrena— 131 herrialdeetako 5.700 kazetarik egindako 98.000 argazki aurkeztu dira. Eta 16 nazionalitateetako 44 argazkilarik jaso dituzte sariak. Aipatu beharra dago aurten argazkilari italiar ugari dagoela aurkeztutakoan artean, eta baita muga handiak jartzen dituzten eta argazkiak nazioartean gutxitan argitaratu ohi dituzten herrialdeetako profesionalen lanak ere: Txina, Turkia, Bangladesh eta Eritreako kazetariak, besteak beste.

Montehermoson izango den 150 bat irudiz osatutako erakusketa 45 herrialdeetako 100 hiritan izango da ikusgai urtean zehar, besteren artean munduko hiriburu nagusienetan, eta ohi den moduan, milioi bat pertsonak baino gehiagok bisitatuko dute.

Aurtengo lehiaketaren irabazlea Mads Nissen daniarra izan da, eta berak aurkeztutako argazkia estetiko da oso; gizatasuna nabarmentzen du eta ia antzezlan kutsua dauka, baina, era berean, gozotasun horrek errealitate gordina uzten du agerian: maitatzeko modu baten jazarpena. San Petersburgoko apartamendu batean ateratako argazkia da, non bi gazte homosexual agertzen diren une goxo batean. Errusian daude, eta bertan, harreman sexual “ez tradizionalak” baztertu egiten dira eta jazarri, eta era horretako harremanak dituzten pertsonak bazterkeria legala eta soziala pairatzen dute, eta baita eraso bortitz zuzenak ere.

Immigrazioak eta errefuxiatuek, Ukrainiako gudak eta beste zenbait gatazkak, ebola izurriteak, Txinako kutsadurak eta naturarekin zerikusia duten istorio harrigarriak osatzen dute aurtengo erakusketa. Dronek ateratako aire-argazkiak ere ikusi ahal izango dira. Eta aurten aipamen berezia merezi du “Epe luzerako proiektuak” izeneko sail berriak, hiru urtetan egindako ehunka argazki biltzen dituenak. Argazkiok, besteak beste, Julie Baird-en familiaren nondik norakoak kontatzen dizkigute; istiluak, hiesak eta pobreziak bortizki kolpatutako sendiaren historia. Darcy Padillaren proiektu hori izan da saileko lehen saria irabazi duena. Eta hain zuzen ere, horrelako kontakizun gizatiarrak, sozialak, pertsona zehatzei eta beren egoerari buruzkoak gailentzen ari zaizkie urtez urte akzio-argazkiei.

1955an Amsterdamen sortu zen World Press Photo munduko prentsa-argazkilaritza lehiaketa entzutetsu eta garrantzitsua da. Erakunde independentea da eta kalitatezko prentsa-argazkilaritzaren bitartez mundua ulertzen laguntzea du helburu. Herbehereetako Constantijn Printzearen babespean, prentsa-argazkilaritzarekin zerikusia duten hezkuntza-jarduerak nahiz

ekitaldi profesional anitz antolatzen ditu urtero eta argazki-erakusketa da, zalantzarik gabe, guztien artean nabarmenena.

2014an 9.780 pertsonak ikusi zuten Vitoria-Gasteizen WPP erakusketa, eta aurten urriaren 16a eta azaroaren 15a bitartean izango da ikusgai antzinako ur-biltegian, asteartetik igandera eta jai-egunetan 11:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 21:00etara. Astelehenetan itxita.

## **World Press Photo 2015, trece años en Vitoria-Gasteiz**

**Del 16 de octubre al 15 de noviembre en el Centro Cultural Montehermoso (Antiguo depósito de aguas)**

Por decimotercer año consecutivo, el certamen de fotoperiodismo más prestigioso del mundo, World Press Photo, se muestra en Vitoria-Gasteiz, en un espacio especialmente apropiado: el antiguo depósito de aguas del Centro Cultural Montehermoso, donde ya se instaló en 2013 y 2014.

Las cifras que genera este concurso para reporteros gráficos profesionales siguen impresionando y reflejan la dimensión del mismo. A esta edición nº 58 se han presentado casi 98.000 fotografías, realizadas por 5.700 reporteros gráficos pertenecientes a 131 países. Han resultado premiados en esta edición 44 fotógrafos de 16 nacionalidades. Destaca la fuerte presencia italiana y trabajos de reporteros de países con muchas restricciones o poco habituales en el panorama internacional como China, Turquía, Bangladesh y Eritrea.

La muestra que podemos contemplar en Montehermoso, alrededor de 150 imágenes, recorre durante el año 100 ciudades de 45 países, entre ellas las principales capitales mundiales. Exposición que, anualmente, visita más de un millón de personas.

El ganador de World Press Photo de este año es el danés Mads Nissen con una imagen estética y de un realce humano casi teatral, pero que refleja, en su evidente sutileza, una cruda realidad: la persecución por amor. Esta tomada en un apartamento de San Petesburgo donde dos jóvenes homosexuales viven un instante de intimidad. Están en Rusia donde, las relaciones sexuales “no tradicionales” son rechazadas, perseguidas y donde estas personas sufren discriminación legal y social cuando no ataques violentos directos. Mads Nilssen, cuyos trabajos se han publicado en Stern, Newsweek y Time, documento durante dos años la homofobia en ese país.

La inmigración y los refugiados, la guerra de Ucrania además de otros conflictos, la epidemia de ébola, la contaminación en China y asombrosas historias relacionadas con la naturaleza conforman esta edición. También se presta atención a la fotografía aérea desde drones. Mención aparte merece un nuevo apartado denominado “Proyectos de larga duración” con decenas de imágenes tomadas a lo largo de tres años. Relatos como el de la familia de Julie Baird donde los conflictos, el SIDA y la pobreza marcan dolorosamente a sus miembros. Este ha sido el proyecto ganador en esta sección, obra del fotógrafo norteamericano Darcy Padilla. Precisamente los relatos humanos, sociales, con personas concretas y sus circunstancias, siguen ganando terreno frente a la acción en las últimas ediciones.

World Press Photo es el certamen de fotoperiodismo internacional más importante. Nace en Ámsterdam en 1955. Organización independiente, su objetivo es inspirar la comprensión del mundo a través del fotoperiodismo de calidad. Bajo el patrocinio del Príncipe Constantijn de

los Países Bajos, realiza múltiples actividades educativas y profesionales relacionadas con el fotoperiodismo, cuya culminación es la exposición anual.

Recordar que el año pasado WPP recibió en Vitoria-Gasteiz 9.780 visitas y que el horario del espacio del antiguo depósito de aguas que acoge la exposición entre el 16 de octubre y 15 de noviembre es, de martes a domingos y festivos, de 11 a 14 y de 18 a 21h. Lunes cerrado.